Honen bidez jakinarazten dizut Alkate jaunak honako Dekretua eman duela:

Notifico a Vd. que el Alcalde ha dictado el siguiente Decreto:

| **Dekretua** / Decreto: | **1227 / 2017** | **Data** / Fecha: | **03/04/2017** |
|---|---|---|---|
| **Gaia** / Asunto: | **Asignar el nombre de Plaza María de Ibarra a la hasta ahora denominada Plaza Txikia.** | | |
| **Arloa** / Área: | ***BARNE ERREGIMENA*** / **REGIMEN INTERIOR** | **Erref.** / Ref.: | **AC/mh** |
| **Interesduna** / Interesado: | **GETXOKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE GETXO** | | |

**AURREKARIAK**

I. Sarrerako erregistroan Administrazioarekiko Auzien Bilboko 3. Epaitegiaren 2015-15-30eko 230/2015 Epaia jaso zen 2016-01-14an, adierazitako prozeduraren barruan emanda. Horren bidez, Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkaritzak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, lehen aipatutakoa, gaitzetsi zen. Errekurtsoa 2015-02-23ko Alkatearen ebazpenaren aurka sartutakoa da, zeren ez zen errekerimendua onartu "Plaza Txikia" deritzanaren izena ezeztatzearren.

II. Apelazio-errekurtsoa jarri zen epai horrenaurrean, 293/2016 apelazio-errekurtsoa zehazki.Horri dagokionez, Euskal Autonomia ErkidegokoJustizia Auzitegi Nagusiak epaia egin zuen 2016-09-19an (384/2016 Epaia), udal honen sarreraerregistroan erregistratu zena 2016-10-3an. Baiespen-epaia zen, Estatuko Administrazioaren ordezkaritzak egindako apelazioari buruzkoa.

III. Sarrera-erregistroan 2016-12-02an jaso zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Justizia Administrazioko legelariaren 2016-11-24ko Dekretua. Haren bidez, prozedura honetan emandako epaia irmotzat jo zuen.

IV. Alkatetzaren 2016-12-27ko 5310/2016 Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 384/2016 Epaiaren jakitun geratu ziren, eta bigarren atalean epaia betetzea xedatu zen.

V. Hori dela eta, Komunikazio Arloko teknikari

**ANTECEDENTES**

I. En fecha 14-01-2016 se registra de entrada Sentencia nº 230/2015, de fecha 30-15-2015, del Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 3 de Bilbao, dictada en el citado procedimiento, por la que se desestima el recurso contencioso administrativo formulado por la Delegación del Gobierno en la Comunidad Autónoma del País Vasco, contra Resolución del Alcalde de fecha 23-02-2015, inadmitiendo el requerimiento para que procediese a dejar sin efecto la denominación de "Plaza Txikia".

II. Dicha Sentencia es recurrida en apelación, recurso de apelación 293/2016, recayendo en fecha 19-09-2016 sentencia nº 384/2016, del T.S.J.P.V., que se registra de entrada en este Ayuntamiento en fecha 13-10-2016, estimatoria de la apelación formulada por la representación de la Administración del Estado.

III. En fecha 02-12-2016 se registra de entrada Decreto del Letrado de la Administración de Justicia del TSJPV de fecha 24-11-2016 declarando firme la sentencia dictada en este procedimiento.

IV. Por Decreto de la Alcaldía nº 5310/2016 de fecha 27-12-2016 se toma conocimiento de la sentencia nº 384/2016 del TSJPV, disponiendo en su Apartado Segundo, proceder a la ejecución de la sentencia.

V. Por ello, el Responsable Técnico del área de



Cod. Validacion: GET/DEK/2017/1227 SWgnUEA8Sv

Sinatua: Firmado: Ana Cillero Ruiz (BARNE ERREGIMENA ARDURADUNA 2011.06.10 eko Alkatearen 2996 Dekretu bidez./RESPONSABLE ÁREA RÉGIMEN INTERIOR En virtud del Decreto de la Alcaldía nº 2996 de...) Data: 2017/04/04 Fecha: 04/04/2017

Getxo

arduradunak txostena egin zuen 2017-02-14an, eta adierazi zuen 2017ko urtarrilaren 28an udalak prozesu bat gauzatu zuela plaza horretako izena aldatzerakoan herritarrek ere parte har zezaten.

Comunicación emite en fecha 14-02-2017 informe indicando que del 28 de enero de 5 febrero de 2017 el Ayuntamiento llevó a cabo el proceso de participación ciudadana para el cambio de denominación de dicha Plaza.

Horretarako, informazioa zabaldu eta gero, parte hartzeko prozesu bat garatu zen, non proposatu zen izendapen berria proposatutako hiru izenen artetik hautatzea. Bi izen zonako toponimiari lotuta zeuden, eta bat emakumeen garrantzia nabarmentzeari. Hauexek izan ziren: "Iturriondo" "Patalondo" eta "María de Ibarra".

Para ello, previa difusión de información se desarrolló un proceso participativo en el que se propusieron que la elección de la nueva denominación fuera entre tres nombres propuestos, dos vinculados con la topinimia de la zona y uno con la puesta en valor de la mujer, a saber "Iturriondo" "Patalondo" y "María de Ibarra".

María de Ibarra aukerak jaso zituen boto gehien. Dokumentu ofizialetan ageri denez, senarrak ematen zion tratu txarra salatu zuen lehenbiziko emakume getxotarra izan zen María de Ibarra, 1664an.

La opción más votada fue "María de Ibarra", primera mujer getxotarra que denunció, en 1664, el maltrato que le infligía su marido, según consta en documentos oficiales,

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 10. artikuluan zehaztuta dago udalerriko bideen izenak toki-erakundeak finkatuko dituela, beti ere izen euskaldun, erromantze ala gaztelaniazkoa errespetatuz, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkera akademikoarekin.

I- La Ley 10/1982, de 24 de noviembre de Normalización del Uso del Euskera en su artículo 10 dispone que la nomenclatura de las vías del Municipio será establecida por la Corporación Local, respetando en todo caso la originalidad euskaldun, romance o castellano, con la grafía propia de cada lengua.

II.- Toki-erakundeen eskumenekoa da kale, plaza eta abarrei izenak jartzea. Eskumen horren oinarria Espainiar Konstituzioko 140. artikuluan zehaztutako udal-baimena da.

II.- Es competencia de las Corporaciones Locales el establecimiento de la denominación de las calles, plazas, etc., competencia que tiene su fundamento en la autorización municipal consagrada por el artículo 140 de la Constitución Española.

III. Udal honek egokitzat jo du kale, plaza eta abarrei izenak jartzerako orduan toponimiara jotzea. Irizpide hori 2005-01-28eko osoko bilkuraren erabakiaren bitartez zabaldu zen. Hala, berdintasun politikekin bat eginez, gure udalerriko eta historiako emakume garrantzitsuen izenak kale berriei ezartzea erabaki zen.

III. Este Ayuntamiento ha venido considerando oportuno acudir a la toponimia para la asignación de nombres a calles, plazas, etc, criterio ampliado por acuerdo plenario de 28-01-2005 que acordó incluir, de acuerdo con las políticas de igualdad, nombres de mujeres importantes de nuestro municipio y de la historia, a las calles de nueva creación.

IV. Garatutako parte hartzeko prozesuak justifikatu egiten du plazari María de Ibarra izena

IV. El proceso participativo llevado a cabo justifica que se asigne a la plaza que nos ocupa



Cod. Validacion: GET/DEK/2017/1227 SWgnUEA8Sv

Sinatua: Firmado: Ana Cillero Ruiz (BARNE ERREGIMENA ARDURADUNA 2011.06.10 eko Alkatearen 2996 Dekretu bidez./RESPONSABLE ÁREA RÉGIMEN INTERIOR En virtud del Decreto de la Alcaldía nº 2996 de...) Data: 2017/04/04 Fecha: 04/04/2017

Getxo

Cod. Validacion: GET/DEK/2017/1227 SWgnUEA8Sv

esleitzea.

el nombre de "María de Ibarra".

V. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. eta 22. artikuluan jasotzen dira alkateari eta osoko bilkurari dagozkien eskumenak.

V. Los artículos 21 y 22, de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, recogen las competencias que corresponden al Alcalde y al Pleno, respectivamente.

Aipatutako Legearen 22.2.b) artikuluan zehaztuta dago osoko bilkuraren eskumena dela udalerriburua aldatzea edo udalerriaren izena aldatzea, baina ez du inolako erreferentziarik egiten kaleen izena jarri edo aldatzearen inguruan.

El artículo 22.2.b) de la citada Ley señala que corresponde al Pleno, entre otros, la alteración de la capitalidad del municipio y el cambio de nombre de éste, pero no hace referencia alguna a la asignación o modificación del nombre de las calles.

Horregatik, Lege horren 21.1.s) artikulura jo behar da; artikulu horretan zehaztuta dago alkateari dagokiola udaleko beste organo batzuei egotzi ez daitekeen hondar-eskumena. Hauxe dio hitzez hitz:

Por ello, se ha de acudir al artículo 21.1.s) de la misma Ley, la cual atribuye al Alcalde la competencia residual de todo aquello que no esté expresamente encomendado a otro órgano. Concretamente señala lo siguiente:

"Alkatea da udalbatzako buru eta eskumen hauek ditu:

"El Alcalde es el Presidente de la Corporación y ostenta las siguientes atribuciones:

s) Legeek berariaz aitortzen dizkioten gainerakoak, eta Estatuko legediak edota autonomia-erkidegoetakoak udalerriari esleitutakoak izanik udaleko beste organo batzuei egotzi ez dizkietenak".

s) Las demás que expresamente le atribuyan las leyes y aquellas que la legislación del Estado o de las Comunidades Autónomas asignen al municipio y no atribuyan a otros órganos municipales."

Beraz, ulertuta geratu da kaleei izena jarri eta aldatzeko eskumena alkateak duela.

Entendiendo, por tanto, que la competencia para la asignación y modificación de la denominación de las calles corresponde al Alcalde.

eta legeak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz,

en virtud de las atribuciones que me confiere la legalidad vigente

**ERABAKI DUT**

**RESUELVO**

1. María de Ibarra plaza izena jartzea orain arte Plaza Txikia izena izan duen plazari, HAPOren arabera Villamonteko 22. eremuan dagoena.

1º Asignar el nombre de Plaza María de Ibarra a la hasta ahora Plaza Txikia, perteneciente al Área nº 22 de Villamonte según el PGOU.

2. Honen berri ematea Estatistikako Udal Sailari eta Zuzendaritza Nagusiari.

2º Dar traslado de la presente al Departamento Municipal de Estadistica así como a la Secretaría General.

3. Udalaren kale-izendegian dagokion aldaketa egitea, eta 5. kale-izendegia sortzea. Bertan

3º. Proceder a la modificación oportuna del Callejero Municipal dando lugar al Callejero nº 5



Sinatua: Firmado: Ana Cillero Ruiz (BARNE ERREGIMENA ARDURADUNA 2011.06.10 eko Alkatearen 2996 Dekretu bidez./RESPONSABLE ÁREA RÉGIMEN INTERIOR En virtud del Decreto de la Alcaldía nº 2996 de...) Data: 2017/04/04 Fecha: 04/04/2017

aldaketa hau eta Santa Eugenia plazari izena esleitu zaiola gehituko dira.

en el que se incorporará tanto este cambio de nombre como la asignación de nombre a la Plaza Santa Eugenia.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/ administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal ( http://www.getxo.eus/ Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

| Jakinarazpen sinadura / Firma de la Notificación | | |
|---|---|---|
| **Sinadura / Firma** | **Sinatzailea / Firmante** | **Kargua / Cargo** |
| Jakinarazpena sinadura<br>Firma Notificación | D./Dª Ana Cillero Ruiz Jnk/Andk | BARNE ERREGIMENA ARDURADUNA 2011.06.10 eko Alkatearen 2996 Dekretu bidez.<br>RESPONSABLE ÁREA RÉGIMEN INTERIOR En virtud del Decreto de la Alcaldía nº 2996 de fecha 10.06.2011 |



Cod. Validacion: GET/DEK/2017/1227 SWgnUEA8Sv

Sinatua: Firmado: Ana Cillero Ruiz (BARNE ERREGIMENA ARDURADUNA 2011.06.10 eko Alkatearen 2996 Dekretu bidez./RESPONSABLE ÁREA RÉGIMEN INTERIOR En virtud del Decreto de la Alcaldía nº 2996 de...) Data: 2017/04/04 Fecha: 04/04/2017

Getxo